



**BOTERE JUDIZIALAREN
KONTSEILU NAGUSIA**

**BIKOTE EDO BIKOTE OIHAREN ARTEAN
BURUTU DIREN ERAILKETEI EDOTA
HILKETEI BURUZKO 2007. URTEAN
ZINPEKOEN EPAIMAHAIK ETA
PROBINTZIAKO AUZITEGIEK EMANDAKO
EPAIEN AZTERKETA.**

***BJKN-KO ETXEKO INDARKERIA ETA GENERO INDARKERIAN ADITUA DEN TALDEA
2009-KO UZTAILA***

BIKOTE EDO BIKOTE OIHAREN ARTEAN BURUTU DIREN ERAILKETEI EDOTA HILKETEI BURUZ 2007. URTEAN ZINPEKOEN EPAIMAHAIK ETA PROBINTZIAKO AUZITEGIEK EMANDAKO EPAIEN AZTERKETA. ONDORIOAK.

2008. urtean zehar Espainia osoan bikote edo bikote oiharen artean burututako erailketa edota hilketa kasuetan, Zinpekoen Epaimahaiak emandako epaiak aztertzen zituzten bi ikerlan aurkeztu genituen. Lehenengoa 2001 eta 2005. urteen artean emandako epaiei buruzkoa zen. Bigarrena 2006. urtean aipatutako Auzitegiek emandako epaiei buruzkoa.

Etxeko Indarkeria eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiko Lehendakariaren ekimen bati erantzuten zioten, perspektiba juridiko, legezko mediku eta soziologiko batetik, emakumeen aurkako indarkeriaren manifestazio basatienan biltzen diren inguruabar batzuk ezagutzeko: heriotz ondorioarekin bukatzen dena eta aurretiko indarkeria egoera bat, gehiago edo gutxiago ezkutatuta edo, batzutan, gutxienetan, aurretik azaleratua, amaitzen duena. Era berdinean ezagutu nahi zen ea, pentsatzen zen bezala, bikote edo bikote oiharen esparruan erailketak edota hilketak ziren, funtsean, genero indarkeria, hau da, parte handiengan gizonak emakumeen aurka burututako ekintza kriminalak ziren.

Eremu zehatz honetan heriotz bortitza inguratzen duten inguruabarren multzoa, definizioz errealitatekanpo egoten diren estereotipoetatik haratago, zehaztasunez ezagutu nahi zen eta hortarako Zinpekoen Epaimahaiak emandako epaien osotasunetik abiatu zen.

Generoko indarkeri izaera abalatu zuten bi ikerlanen ondorioek funtsean, eta geihenbat alterazio mentalagatik edo edari alkoholik edo drogak hartzeagatik, eraso hilgarriak baldintzatuak zetoze nabarmentzen zuten gizartean ezarritako zenbait mito desaktibatzea lortu zuten. Hau dena, berme prozesal guztiekin, ahozko epaiketaren egitea eta dagokion probaren praktikaren ondoren, frogatu eta aitortutako gertaeren arabera.

Lehenengo ikerlanan zehar jarraipena emateko beharra begibistako geratu zen eta indarkeri honen manifestazio basatienean, txikiagoa ez den, aspektu bat -berme guztiekin eginda, ahozko epaiketan egiaztatuta daudenak- ezagutzeko helburuarekin hurrengo ikerlanak urtero burutzea hitzartu zen eta aurrerantzean egingo ziren bestelako ikerlanetan lortutako ondorioak denboran zehar mantentzen ziren, edo alderantziz, aldatzen ziren baieztatu.

Bikote edo bikote ohiaren esparru berdinean burututako erailketa edota hilketa kasuetan Probintziako Auzitegiek emandako epaiei ere egin behar zaizkien hurrengo ikerlanak handiagotzearen beharra baloratu zen, gainera, bigarren ikerlana igaro ahala. Elkarri lotutako beste delitu batzuekin batera salaketa jartzen zenean organo hauek ziren gertaera hauek epaitzen zituztenak.

Batzuengatik edo besteengatik, gizon edo emakume, epaiketa objektu izandako bikote edo bikote ohiaren artean burututako ekintzetan arreta jarritz, Generoko Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren bitartez burututako erailketa eta hilketei buruz, aukeratutako denboraldi berrian, heuren lurraldetan Zinpekoen Epaimahaiek eta Probintziako Auzitegiek emandako epaien osotasuna igortzera ekin duten Probintziako Auzitegiekako Lehendakaritza guztien lankidetzarekin kontatu da berriro ikerlan hau burutzeko.

Botere Judizialearen Kontseilu Nagusiaren Etxeko Indarkeri eta Generoko Indarkerian aditua den taldea gaur egun osatzen duten magistratuek, osatzen zutenetarik bi 2008. urteko irailean aukeratutako BJKN berriaren batzordekide izendatuak izan ondoren –Pilar Alambra Pérez anderea, Vicente Magro Servet jauna, Maria Jesús Millán de las Heras anderea, María Tardón Olmos anderea, Isabel Tena Franco anderea eta Francisca Verdejo Torralba anderea-, baita Kontseiluko eta magistratu ere diren Joaquín Delgado Martín jaunak, Zerbitzu Nagusiko Arduraduna, eta Paloma Marín López andereak, Kontseiluko Behatokiko Sekzioko Arduraduna, baita ere koordinatu duena, burutu dute ikerlan hau berriro.

Gertaeren auzitegi medikuaren analisia eta inguratzen dituzten inguruabarren ekarpena egin dituen auzitegi mediku eta generoko indarkerian aditu ezaguna eta ikastuna den Miguel Lorente Acosta jaunaren parte hartzearekin kontatu da berriro gainera.

Aurrekoei segida ematen saiatu dira ikerlan honetan, haietan lantzen ziren aspektuak mantenduz. Honetan bereziki, gainera, desberdindu egin dira gertaeren auzitegi medikuaren analisiari eta gertaera kriminal hauen burutzea lagundu duten inguruabarrei dagokienez, alde batetik generoko indarkeri kasuak (emakumeen aurka gizonak burututako ekintzak) eta bestetik etxeko indarkeri kasuak (heuren bikote edo bikote ohi diren gizonen aurka emakumeek burututako ekintzak). Eta hori, 2007. urtean emandako epaietan, nahiz eta zati handiena lehenengo kasuan sartzen den, bigarrenen presentzia handiago bat dagoelako, ondoren azalduko diren berezitasunekin.

Gainera, aztertzen saiatu dira, aurretik egindakoen ikerlan esparrua gaintuz, lehenago nabarmendu den bezala, bikote edo bikote oiharen esparruan burututako erailketen edota hilketen kasuan emandako epaien osotasuna, salaketa pertsona bizi baten aurka zuzendu ahal izan denean beti ere, hau da, egilearen buruhiltzea eraso hilgarriaren segidan gertatzearen suposaketak, bideratze fasean dagoen auzia amaitutzat jotzera daramana, edo ustezko egilearen heriotza epaiaren ematea baino lehenago gertatu direneko kasuak baztertzen dira, era berdinean jarduerak amaitutzat jotzen direla ere. Horregatik, Zinpeko Epaimahaiak eta Probintziako Auzitegiek 2007. urtean esparru honetan emandako **35 epaiei** zuzenduta doa ikerlan hau, hurrengo mutur hauek bere baitan hartzen dituelarik:

- Erabakien zigor edo absoluzio epaia ematea.
- Gizon eta emakumeen osaera Epaimahai Auzitegiaren kide bezala, hau izan denean epai organoa.
- Gertaeren neurketa Auzitegiaren aldetik.
- Salatutako pertsonaren eta biktimaren sexua, adin tartea eta nazionalitatea
- Gertaera kriminal hauen burutzean erabilitako bitartekoak.
- Erabilitako heriotz mekanismoak.
- Gertaeren komisioren data, lekua eta ordua.



- Ezarritako zigorrak, bai nagusiak eta bai gehigarriak.
- Epaian ikusitako erantzukizun kriminaleko aldagarriak diren inguruabar nagusiak.
- Alderdien arteko erlazio pertsonala eta elkarbizitza egoera edo ez.
- Aurretik egindako salaketen eta eraso edo mehatxuen existentzia edo ez.
- Babes edo beste kautelazko neurri edo aurretik hartutako neurrien existentzia.
- Seme eta alaben existentzia eta adina, eta baiezko kasuan, epaitutako gertaeren heuren zuzeneko lekukoaren baldintza.
- Beste zuzeneko lekukoaren existentzia.
- Auziaren bideratzearen iraupenean zehar hitzartutako askatasun gabeko kautelazko neurriak.
- Akusazio partikular edo popularraren pertsonazioa.
- Biktima bat baino gehiagoren existentzia edo beste delitu batzuen kondena biltzen dituzten epaien zenbatekoa.
- Delitutik eratorritako erantzukizun zibilaren zehaztea.
- Gai honi buruz 2007. urtean emandako zenbatekoa Autonomi Erkidegoko.
- Indultu gaiari buruzko Epaimahaiaren posizioa, bere kasuan, eta mutur noni buruz epaiak burutu duen erabakia.
- Pertsona erasotzailearen gertaeren ondorengo jokaera

Beste alde batetik, ikerlan honetan ailegaturiko ondorioetan 2006. urtean emandako erabakiek osatu zituztenekin konparaketa bat burutzen da. Azkeneko ikerlanean nabarmentzen zen bezala, heuretako bakoitza epaiak emandako datan eta ez gertaerak burututakoan zentratu denez, horrelako konparaketa bat ezin da baliakidetu aurkezten diren datuekin.


Ikertutako erabakien multzoak ondorengo **ONDORIOETARA** ailegatzea ahalbidetu du.

1.goa- Ikertu diren epaien osotasuna kondentatzailea da. Ekintza kriminalen burutzea eta salatutako pertsonen partehartzea frogatutzat eman dela esan nahi du honek, salaketa egin den heriotz amaierako kasu guztietan.

2007. URTEAN ZINPEKOEN EPAIMAHAIK ETA PROBINTZIAKO AUZITEGIEK EMANDAKO ZIGOR EPAIAK





2.ena- Ikertuak izan diren 35etatik, 27 (%77) Zinpekoen Epaimahaiek eta 8 (%23) Probintziako Auzitegiek emandakoak izan dira.





3.ena- Ikerlan objektu izan diren Zinpekoen Epaimahaiek emandako 27 epaietatik, gertaerak bere eritziaren arabera epaitzen dituen Zinpeko Epaimahaiek osatzen duten hiritarren izena jasotzen dutenak bakarrik 5 (%19) dira. Datu hau agertzen den epaietatik **Auzitegiaren osaeran (9 hiritar) gizon eta emakumeen artean partaidetza orekatu bat** dagoelaren ondorioa ateratzen da, aurreko ikerlanetako berdina: kasu honetan, 27 gizonezko, sexuz identifikagarri diren pertsonen osotasunaren %60, eta 18 emakumezko, %40

EMAKUMEEN SEXUAREN ISLADA EPAIMAHAIEKIKO





ZINPEKO EPAIMAHAIAREN OSAERAN GIZON ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA





4.ena- Ikertutako epaien zatirik handienak, heuretako 22, %63 baten baliokidea, gertaera erailketatzat jotzen du, berekin dakarrena kasu hauetan frogatu egin dela heriotza burutu egin dela bai azpikeriaz (mindutakoaren defentsatik egilearen pertsonara etor daitekeen arriskurik gabe, azken emaitza zuzenean ziurtatzen duten bitarteko, era edo formen burutzearen erabilera behar duena), bai basakeriaz (heriotzaren ondorioa lortzeko min gehigarri behargabe bat sortzen, biktimaren sufrimendua era jasangaitz eta nahita handiagotzen denean gertatzen dela) edo prezio, sari edo agintzagatik, hilketaren oinarrizko

motatik heriotza gizahilketa bezala bereizten duten hiru suposizioak direla.

Kasuen %34 batean -12 epai- gertaera hilketatzat jo da eta %3 batean – epai bat- hilketa zuhurtziagabetzat.

ZIGOR KALIFIKAZIOA



Honek suposatzen du, datu hauek 2006. urtean Zinpekoen Epaimahaiek emandako epaienekin alderatuz, eraiketa bezala hartutako gertaeren kalifikazioan 16 puntuetako beherakada eta hilketa bezala hartutako gertaeren kalifikazioan 16 puntuetako gorakada korrelatiboa, hilketa zuhurtzia gabeen portzentaia mantenduz. Hurbiltzen dira, horregatik, Zinpekoen Epaimahaiek emandako epaien lehen ikerlanaren portzentaia, 2001 eta 2005.

urteen artean, ikertutako epaien %64,06ak gertaerak gizahilketatzat jo zituela jakinarazi zutena, %33,98ak hilketatzat jo zituen bitartean.



Epaietan ustezko erailketatzat jo direnen kopuru handiagoak larritasun handiago bat ezagutarazten duten epaitutako gertaeren kasuen gehitze bat ezagutzera ematen badu, aurrekoak ez du uzten konklusio espezifikotara iristea, ikerlan honek, aurrekoek bezala, epaiketen, ez gertaeren burutzearen datetara igortzen dutelako, eta, edozein kasutan, bat eta beste kalifikazio ohiz kanpoko larritasunekoak dira, pertsona baten heriotzaren gogozko kausari buruzkoak direnak.

5.ena- Erailketen edota hilketen **egileen gehiengoa gizonezkoa** da. Horrela, aztertutako kasuen **%77an** -35 epaietatik 27-, egilea gizonezkoa da, ustezkoen **%23aren** -8 epai- kontra egilea -bakarrik edo beste pertsona baten laguntzarekin, normalean bere bikote sentimental berri gizonezkoarekin- **emakumezkoa** delarik.

Egilearen gizonezko baldintzaren hogeitun puntutako beherakada, aurreko ikerlanarekin konparatuz, eta portzentaia berdinean emakumezko egileen gorakada korrelatiboa suposatzen du.

Nahiz eta ekintza hauen burutzean emakumeen portzentaiezko presentzia handiagoa egon –lagin bati dagokionez egiten dena, zenbaki absolutuetan, benetan txikia- datu hauek iradokitzen dute, berriro ere, funtsean, bikote edo bikoteoiharen esparruan burututako hilketek eta gizahilketek genero indarkeriaren ekintza kriminalak direla.

EGILEAREN SEXUA





6.ena- Egilearen nazionalitateari dagokionez, kasu gehienetan hau **espainiarra** da, 23 epaietan gertatzen dena, kasuen **%66**aren baliokidea dena. Gainontzekoetan, kasuen **%34** -12 epaietan- egilea **atzerritarra** da.



Portzentai hauek, bere balorazioen ondorioz, 2.007ri dagokion espainiar eta atzerritar populazio tasarekin erlazionatu behar da (IEN-ren datuen arabera, 2.007 dagokionak, espainiar populazioa 45. 200. 737 biztanleetara igo zen, horietatik 4. 519. 554 atzerritarrak zirelarik, hots, %10) eta baita berari dagokion ezaugarri demografikoekin ere.

Azterketa honetan egilearen nazionalitateari dagokion datuek **egile espainiarren portzentaian lau puntuko jeitsiera eman dela erakusten da, egile atzerritarren portzentai gorakada korrelatiboarekin batera.**

EGILEAREN NAZIONALITATEA





POPULAZIOAREN NAZIONALITATEA: 2007



7.ena- Biktimen nazionalitateari dagokionez, analizatu diren 35 epaietatik 31 kasuetan berdina agertzen da, hau da, hauetatik %89 kasuetan. Datu hau jasotzen duten ebazpenetatik, horietatik %65an **espainiarrak** dira, kasuen %35an **atzerritarrak** diren bitartean.



Honekin, **biktima espainiarren portzentaia hamabi puntutan jeitsi dela, bitartean atzerritarrak diren biktimen portzentaia tamaina horretan handitu dela ikusten da.** Hala ere, aurreko azterketetan eta honetako beste ataletan ere zehazten den moduan, epaiak eman ziren datei dagokienak, portzentai honek 2.007an zehar esparru honetan hil diren emakumeen nazionalitatearekin bat egiten ez duela kontutan eduki behar da. Beste aldetik, ebazpen guztiak biltzen ez dituen datu batetaz ari gara.

BIKTIMEN NAZIONALITATEA



8.ena- Egileen **adinaren** hedadura handia da, baina datu hau jasotzen duten 31 epaietan **31 eta 45 urte** bitarteko tartea gailentzen dela antzematen da – 2.006.an eman ziren epaietan ere gertatzen zen-, 11 kasuetan, muturreko joera hau jasotzen duten epaien



%35aren baliokidea delarik. Honi oso hurbiletik 46 eta 65 urte bitarteko tartea jarraitzen dio, 10 kasurekin, %32 baten baliokidea dena, eta 18 eta 30 bitarteko tartea, 7 kasutan, hau da, %23. 3 kasutan -%10 bat- egileak 66 urteko adina gainditzen du.



Biktimen adinari dagokionez, muturreko egoera hau 35 epaietatik soilik 13k jasotzen dute, **18tik 30ra urte bitartera doan tartea gailentzen delarik**, informazio hau eskeintzen duten 7 kasutan gertatzen den bezala, beraien %54 baten baliokidea dena.


Honek, datu hau daukaten ebazpenen zenbateko murriztetik eratorritako kautelarekin, hildako biktimen adinaren tartean beherakada bat erakusten du, heriotza eragin duten ekintza kriminalaren gorakada adin goiztiarragotan adieraziz, gertakari hauen epaietaren data perspektibatik aurrera.

BIKTIMEN ADINA



9.ena- Generoko indarkeri kasuetan erabili diren heriotz mekanismoei dagokienean, erasotzaileek beraien bikote edo bikote ohiaren bizitzarekin amaitzeko erabiltzen dituzten prozedurak, aurreko azterketen moduan, bi kategorien artean enkuadratzen ahal dira, erabili diren mekanismoen zenbatekoaren arabera: sinpleak, bat bakarrik erabiltzen denean eta mistoak, mekanismo bat baino gehiagora jotzen denean.


Mekanismo sinple batekin gauzatu diren erailketak %81,5 suposatzen dute eta mekanismo mistoen bidez aurrera eramandakoek %18,5. Inguruabar honek **mekanismo mistoen bidez gauzatu diren erailketen 8,8 puntuko murrizketa** suposatzen du, datu hau izaera orientatzailearekin eta orokorrearekin ulertu behar bada ere, aurreko azterketekiko, analisisiek, aurretik aipatu den moduan, epaiaren datari erreferentzia egiten diote, ez epaitu diren gertakariekin erlazionatuta dauden denboraldi zehatzekin.



10.ena- Generoko indarkeria kasuetan erabili diren mekanismo sinpleen ezaugarriei dagokienean, maiztasun handienarekin erabilitakoak arma zuriak (%48,1; aurreko urtean eman ziren epaiekiko 0,4 puntuko jeitsiera suposatzen duena), funtsean eremu kraneoenzefalikora bideratu diren traumatismo makatuak (%18,5; 9,4 puntuko gorakadarekin), eskuarekin bihurritzea (%7,4; 1,3 puntu igotzen dena) eta suzko arma (%3,7; era berdinean 0,6 puntu igotzen dena).


Berriro ere, arma zuria tresnarik erabiliena da, funtsean aurreko azterketako oso antzekoa den portzentai batekin. Aldi berean, aldiz, traumatismoak %100 baino gehiago hazi dira, aurreko urtean eman ziren epaietan antzematen zenarekiko eszenatoki ezberdin bat erakutsiz. Egoera berri hori ere erailketak gauzatzeko erabili diren mekanismoen zenbatekoan antzematen da. Aurrekoan 9tik 6ra pasatu ziren eta honetan 5era mugatuta ikusi dira. Maiztasunak ere aldatuak izan dira. Ondorengo taulan kolore berdez 2.006ko epaien azterketarekiko hazitu direnak agertzen dira, arrosaz 2.006.an lehenengo azterketarekiko handitu ziren mekanismoak jasotzen diren bitartean.

	2.001-2.005 ZE-ren EPAIAK	2.006 ZE-ren EPAIAK	2.007 ZE eta PA-en EPAIAK
Arma zuria	36.2	48.5	48.1
Suzko arma	5.4	3.1	3.7
Traumatismoak	14.1	9.1	18.5
Begizta bidezko itotzea	4.7	3.1	-
Eskuz itotzea	5.4	6.1	7.4
Harrapatzea	1.4	3.1	-
Sua	-	-	3.7




ERABILITAKO HERIOTZ MEKANISMO SINPLEAK

11.ena- Emakumezkoen bizitzarekin bukatzeko zuzenean eskuak erabiltzeari dagokionean, mekanismoen portzentai esanguratsu bat protagonizatzen jarraitzen dute, bai prozedura sinpleetan zein mistoetan. Sinpleen kasuan, erailketen %31,8 batean egiten da, eta mistoenean, %60an; honek guztira (simple eta mistoak) generoko indakeriaren kasuen %37,1ean zuzenean eskuak erabili direla suposatzen du.




MEKANISMO SINPLEKO ERAILKETAK GAUZATZEAN ARMA EDO TRESNAK ERABILTzea
 (Mekanismo sinplean gauzatu diren erailketen zenbateko guztia: 22)

Egoera honek mekanismo sinpleetan eskuen erabilera zuzenaren 6,8 puntuko handitzea suposatzen du eta mekanismo mistoetan 26,7 puntukoa, datu hauek **eskuen erabilera orokorra 9,8 puntutan handitu dela** erakusten dutelarik.



MEKANISMO SINPLE ETA MISTOAK ERABILIZ GAUZATUTAKO ERAILKETA, SOILIK ZUZENEAN ESKUAK ERABILITA

12.ena- Emakumezkoen bizitzarekin amaitzeko erabiltzen diren mekanismo mistoei dagokienez, erailketak gauzatzeko erabili direnei buruzko azterketak guztira mekanismo sinple ezberdinen 5 konbinazio erabili direla erakusten du, hauen artean 3tan bi mekanismo sinple erabiltzen dira eta 2tan erasotzaileek hiru prozedura errezten konbinazio bat erabili zuten.



ERAILKETAK GAUZATZEKO ERABILITAKO MEKANISMO MISTOEN ZENBATEKOA


(Mekanismo misto baten bidez gauzaturako erailketen zenbatekoa guztira: 5)

Erabili den mekanismo misto bakar bat ere ez da errepikatua izan. Gainera, erabili diren konbinazio ezberdin bakoitza soilik kasu bakar batean erabilia izan da.

Maiztasun handienarekin prozedura mistoei hasiera ematen diren konbinazioaren parte gisa erabilia izan den mekanismo sinplea traumatismoko eraso izan da (%33,3), honi itotzeak eta itomenak jarraitzen diotelarik (%25).

Egoera honek erakusten jarraitzen du **lehenengo une batean biktima erasotzeko era gisa eremu kraneoenzefalikora bideratutako traumatismo baliabidera jotzen dela, gero erasoarekin jarraitzeko beste prozedura baten bidez bere bizitzarekin amaitu arte.**

Inguruabar hauek eraso gauzatu den testuingurura mugatzen diren prozeduren barneratzea bultzatzen dute. Prozedura mistoen barnean eraso errezetan erabiltzen ez den mekanismo sinple berri bat agertzen da, zehazki, azterketa honetan, konpresio torako-abdominala.



HERIOTZ MEKANISMO MISTOEN PARTE GISA ERABILITAKO PROZEDURA SINPLEAK

(Guztira era ezberdinetara konbinatutako 5 mekanismo sinple agertzen dira, hauetako bat erailketan mekanismo sinple gisa erabilia izan ez dena)


Maiztasun handieneko tresna gisa arma zuria erabiltzen duten erailketetan zentratutako analisiak, mekanismo sinpleko zein mistoko kasuak barneratuz, krimen hauetan garatu diren jokaerak baloratzeko orduan interes handiko datu bat eskeintzen du.

Arma zuriak 13 eraso sinpletan eta misto 1tean erabili dira, hau da, 14 kasutan, honek **guztiaren %52** bat suposatzen duelarik. Eman diren **sastaden zenbatekoari** dagokionez, epaien “Frogatutako Egintzak” tan adierazten denaren arabera, guztira gutxi gorabehera **179**ra igotzen da. Kopuru honek arma zuriak erabili diren **kasu bakoitzeko bataz besteko labankada kopurua 12,8koa dela suposatzen du, inguruabar honek bataz besteko hau aurreko azterketarekiko 15 puntu txikitu dela esan nahi du.** Hala ere, bi egintza kriminal mota antzematen dira: beraien multzo bat zeinetan labankada 1 ezkerreko hemitorax-era bideratua dagoen, justu eremu kardiakoan, eta beste multzo bat, zeinetan zauri ebaki-ziztatzaileen bataz bestekoa altuagoa den.


Hirugarren azterketa honen emaitzak, erabili diren erailketa prozedurei dagokienak, emaitz ezberdin bat erakusten du, bereziki, **erailketa prozeduraren parte gisa eskuen erabilera zuzenaren gorakadagatik**. Hala ere, egoera honek **ez du esan nahi biolentzia maila gutxitu egin denik, bai hau materializatzeko eraren aldaketa eman dela**. Datu orokorrek erailketa jarrerak hiraz eta biolentziaz beteta daudela erakusten dute, traumatismoko kasuen hazkunde garrantzitsua bezalako egintzengatik (2.006.ko epaien azterketarekiko %103,3ko hankundea), egintza hauek hurbiltasun eta kontaktu estu bat, eta hauek biktimarekin edukitzea eskatzen dutelarik, baita eskuekin itotzean eta heriotza eragiteko zuzenean eskuak erabiltzean oinarritutako egintzen hankundeagatik, bai mekanismo sinpleetan zein mistoetan.

Datu hauek **arma zuriz eragindako heriotz mekanismoa eta eskuen erabilera zuzenaren artean alderantzizko harremanaren** existentzia adierazten duela dirudi, horrela lehenengo prozedura handitzen denean bigarrena txikitu egiten da, azkeneko hau handitzen denean kontrakoa gertatzen delarik.

13.ena- Emakumezkoen bizitzarekin amaitzen duten biolentzia egintzak gauzatzen diren ordutegiari dagokionez, 2.007 eman ziren epaietan azaltzen diren erailketak gauzatu ziren orduen analisiak emaitz irregularrago bat erakusten du, **gaueko tartean erailketen konzentrazio bat ematen delarik, zehazki 21.00 ordutik 8.00 ordutara**. Hala ere, ordutegiei buruzko bigarren grafikan ikusten ahal den moduan, data honetara arte gauzatu diren hiru azterketa guztien objektu izan den heriotza eragin duten egintza kriminalen multzoari dagokiona, honek ez du egoera orokorra modu garrantzitsu batean aldatu.




ERAILKETAK GAUZATU ZIREN ORDUTEGIA (27 kasu)




ERAILKETAK GAUZATU ZIREN ORDUTEGIA 2001-2007ko epaiak (epaian informazioa eskuragarri zeukaten 188 kasu)

Gaueko ordutegiaren hazkundera, gainera, prozedura mistoko kasuei dagokien hazkunderarekin batera gauzatzen da, datu hauek 2.006ko epaien azterketarekin konparatuz gero, %8,1ko batz besteko bat ordezkatzetik %11,2kora pasatu dira, prozedura mistoetara jotzen

diren kasuen maiztasun handieneko ordutegi tartea 15.00tik 20.00 ordutara baldin bada ere.




**ERAILKETA SINPLE ETA MISTOEN
ORDUTEGIAREN KONPARAKETA**
(27 kasu)



**ERAILKETA SINPLE ETA MISTOEN
ORDUTEGIAREN KONPARAKETA**
2.001-2.007KO EPAIAK
(epaian informazioa eskuragarri zeukaten 188 kasu)

Hiru azterketetan analizatzen diren urteetan gauzatu diren erailketa edo hilketen zenbatekoarekin, kasu horien garapena konparatzean, gaueko ordutegi tartera arte kasuen zenbatekoen hazkundera aurrerakoa dela, eta prozedura mistoen hazkunde batekin konkurritzen duela antzematen da, ondoriozko sinpleen jeitsiera batekin.



**ERAILKETA SINPLE ETA MISTOEN
ORDUTEGIAREN KONPARAKETA**
(epaien informazioa eskuragarri zeukaten 188 kasu)


2.007.an eman ziren epaien azterketan erakusten den egoerak **biolentzia maila altu bat adierazten du, bere espresioa denborak aurrera egin ahala intentsitatean irabaziz eta garatuz dihoan prozesu baten parte gisa bultzatua ikusten duelarik. Honek, beste faktore batzuekin batera, eguneko azkeneko orduetan bere espresioa era bereziki biolentzian ematea errezten du, eta maila altuko biolentzian bihurtzen den, eta mekanismo mistoen erabileran manifestatzen den eta erailketa tresnak intentsitate eta haserre handiarekin aplikatzeko eretan oinarritzen den hira prozeduren bitartez gauzatzen da.**

Informazioaren hazkunde aurrerakoiak, aztertu diren epaien zenbatekoa handitzen den heinean, emakumezkoen aurkako erailketa edo hilketa gauzatzeko eran patroiz ezberdinak antzematea ahalbideratzen du., datu berriak jasotzen diren heinean analizatu beharko direnak.

14.ena- Etxeko indarkeriaren esparruan gauzatu diren heriotzak, beraien aldetik, beste profil batzuk erakusten dituzte.


Horrela, etxeko indarkeriaren 8 erailketa edota hilketei dagokienez, hauetariko 6 kasuetan erailketaren egile materiala emakumezkoa izan zen eta biktima harreman sentimental bat zeukan edo eduki zuen gizonezko bat izanik. Gainontzeko beste bi kasuetan kondenatuak gizonezko bat eta emakumezko bat izan ziren, beraien artean egile materiala lehenengoa izan zelarik eta emakumezkoak bikote harreman bat zuen edo eduki zuen beste gizonezko baten heriotzaren konplize moduan jokatu zuelarik.

15.ena- Etxeko indarkeria kasuetan erabili diren heriotz mekanismoei dagokienez, zortzi kasutatik zazpi mekanismo sinple baten bidez gauzatu ziren, honek guztiaren %87,5 suposatzen du, prozedura misto baten bidez gauzatu den erailketek aurkezten duten %12,5aren aurrean.



Heriotza gauzatzeko erabili diren mekanismoak 3ra murrizten dira. Mekanismo sinple bidezko erailketen kasuan, soilik bi mekanismo azaltzen dira, arma zuri baten erabilera 5 kasuetan (%62,5) eta suzko arma batena 2tan (%25). Mekanismo mistoen artean, traumatismoen egintza konbinatua erabili zen kasu bakar bat dago,

kasu honetan eremu kraneo-enzefalikora bideratua; mekanismo misto honek guztiaren %12,5 ordezkatzeko du.




ERABILITAKO HERIOTZ MEKANISMO SINPLEAK


ETXEKO INDARKERIA

Etxeko indarkeria kasuak generoko indarkeriarekin konparatzeak, lehenengo multzoaren zenbateko murrizaren mugak kontutan edukita beti, ondorengoak azpimarratu behar direla erakusten du, etxeko indarkeriaren erailketetan:

- Mekanismo gutxiago.
- Mekanismo sinpleen bidez gauzatu diren erailketen portzentai pixkat altuagoa (6 puntu).
- Arma zuri bidez egin diren erailketek generoko indarkeria kasuetan mekanismo berdinen bidez gauzatu direnak baino 14,4 puntu gehiago suposatzen dute.
- Suzko arma bidez egin diren erailketek generoko indarkeria multzoan erailketa mota berdinek baino 21,3 puntu gehiago dauzkate.
- Kasu bakar bat ere ez da era zuzen batean eskuen erabilera bidez gauzatu.



ERAILKETEN GAUZATZEAN ERABILITAKO MEKANISMO MOTAK
ETXEKO INDARKERIA GENEROKO INDARKERIAREN aurrean




ERABILITAKO HERIOTZ MEKANISMO SINPLEAK
ETXEKO INDARKERIA GENEROKO INDARKERIAren aurrean

Hurbilketa honek, **etxeko indarkeriaren kasuetan**, hauek gauzatzen diren inguruabarrengatik, erailketak *a priori* heriotza era zuzen batean gauzatzeko gai direla pentsaraztera eramaten duten (armen baliabidea) eta hau lortzeko **indar gutxiago behar duten prozeduren bidez** gauzatzen dela erakusten digu. Guzti hau materializazioan **“biolentzia gradu txikiagoa”** bezala kontsideratua


denagatik lagunduta dago eta erabili den mekanismoaz gain, exekutatzeko moduan ikusten da eta horrela, adibidez, **arma zuriak erabiltzen diren kasuetan sastaden batz bestekoa** (5 sinple eta mistoa) 1,75koa da, eta, **analisia egile materiala emakumezkoa den kasuetara mugatzen bada, soilik hauetako bakoitzean sastada bat ematen da.**

Eraiketa hauekin batera biolentzia gradu handiagoko bi kasu agertzen dira, hauetako bat suzko arma baten bidez gauzatutakoa, zeinean 4 tiro egitera ailegaten diren, eta beste mistoa, zeinean traumatismo kraneoenzefaliko bat gauzatzen den eta ondoren, lepo mozte bat.

16.ena- Etxeko indarkeriaren esparruan erailketak gauzatzen diren ordutegiari dagokionez, egintzen ordutegi zehaztasuna duten horietako zazpi kasuak gauzatzen diren orduaren analisiak egintza hauek eguneko lehenengo orduetan eta egunsentian zehar ematen direla erakusten du.



Generoko indarkeria kasuekin konparatzeak, beti kasuaren mugak kontutan edukita, profil ezberdin bat erakusten du, generoko indarkeriak gauzatutako erailketak eguerdi partean konzentratzen zirelako.



ERAILKETAK GAUZATU ZIREN ORDUTEGIA
(7 kasu)
ETXEKO INDARKERIA GENEROKO INDARKERIAren aurrean



17.ena- Analizatu diren epaien multzoan ezarri diren **zigorrei** dagokienez, **kondena kasu guztietan oinarrizko zigor gisa ezartzen dena kartzelakoa da**, Zigor Kodean egintza hauetan mota honetako aurreikusten den bakarra izanik.

Erailketa kasuetan askatasun gabezia zigorraren iraupena hamar urtetik hamabost urte bitartekoa da; hilketarentzat hamabost urtetik hogeitaz kartzela zigorra dago, horrela kualifikatzen duten inguruabar bakar batek konkurritzen badu –azpikeria, basakeria edo salneurria, ordainsaria edo promesa ezarriz- eta hogeitaz hogeitabostera egintzak hilketa moduan kalifikatzea ahalbideratzen duten bi inguruabar edo gehiagok konkurritzen dutenean, kasu bakoitzean ezarri behar den zigor zehatza indibidualizatuz, ardurak kriminala aldatzen duten inguruabarren existentzia antzematearen (aringarriak, larrigarria, salbuesleak edo salbuesle osatu gabeak) eta egintzen exekuzioan agertzen diren gainontzeko inguruabarren araberakoa.

Aztergai den kasuan, **askatasun gabezia zigorra** ezarri den 22 kasuetan zeinetan **hilketa** delituagatik kondena epaia eman zen, zigor hau 25 urte (kasu 1) eta 6 urte (kasu 1) bitartean eman delarik. Gainontzeko askatasun gabezia zigorrak 7 urte eta 6 hilabetekoak (2

kasu), 10 urtekoak (kasu 1), 15 urtekoak (2 kasu), 16 urtekoak (2 kasu), 16 urte eta 6 hilabetekoak (kasu 1), 17 urtekoak (kasu 1), 17 urte eta 6 hilabetekoak (kasu 1), 18 urtekoak (4 kasu), 18 urte eta 6 hilabetekoak (kasu 1), 19 urtekoak (kasu 1), 20 urtekoak (3 kasu) eta 22 urte eta 6 hilabetekoak (kasu 1) izan dira.



Hilketa delituarengatik kondenatzen duten 22 epaietan ezarri diren askatasun gabezia zigorraren iraupena 361 urte batzen dituzte, delitu honengatik **batz besteko kondena ia 16 urte eta erdiko kartzela zigorrean aurkitzen delarik.**



Eraiketa gisa epaietan kalifikatu diren 12 kasuei dagokienez, askatasun gabezia zigorrak 14 urteko askatasun gabeziaren, kasu bakar batean, 5 urteko askatasun gabeziara arte, bi kasutan, eman dira, 9 urte eta 11 hilabete pasaz (kasu1), 10 urte (kasu 1), 10 urte eta 6 hilabete (kasu 1), 11 urte (3 kasu), 12 urte eta 6 hilabete (2 kasu) eta 12 urte eta 7 hilabete (kasu 1).

Erailketa deituagatik kondenatzen duten 12 epaietan ezarri diren askatasun gabezia zigorrek guztira 125 urte batzen dituzte, **delitu honengatik ezarri diren kondenak batz bestekoa 10 urte baino gehiagoko kartzela zigorra delarik.**

ERAILKETAGATIK KONDENA: ASKATASUN GABEZIA ZIGORRAREN IRAUPENA



Epaiak erailketa zuzentzia gabea gisa kalifikatua izan den kasu bakarrean, ezarri den zigorra hiru urte eta hiru hilabeteko askatasun gabezia da.

Aurreko datuek egintza hauengatik –beraien modalitatea edozein bada ere- Zinpekoen Epaimahaiak eta Probintziako Auzitegiek eman dituzten epaietan 2.007ko kasu hauetan batz beste ezartzen diren askatasun gabezia 14 urtekoa dela erakusten dute.


Aztertzen diren denboraldian, gainera, **zigor osagarrien ezarpen eskasa** antzematen da, inhabilitazio absolutu orokorretik at, aztertu diren 22 epaietan ezarritakoa, kasuen %63ren baliokidea dena.



Horrela, **9 kasutan (%26) hildako biktimaren familiarrekin edo hirugarren pertsonekin komunikatzeko debekua ezarri da eta 8 kasutan (%23) familiarrei edo hirugarren pertsoneri hurbiltzeko debekua ezarri da. 5 kasutan (%14) leku zehatzetan bizitu edo hara joateko eskubidearen kentzea ezarri da. 2 kasutan (%6) armak eduki edo eramateko eskubidea kentzean oinarritutako zigor osagarria ezarri da.**

Gainera, 15 epaietan (%43) **inhabilitazio bereziaren** zigorra ezarri da. Horietatik 11 (%73) sufragio pasiboaren eskubidearen jardunari dagokie eta **3 (zigor osagarri hau ezartzen dutenen %20 eta ia aztertu diren epai guztien %10) guraso aginteko jardunari dagokie.** Aipatu diren epai horietako bat ez dagokio kasu bakar bati ere.

Aztertu diren epai bakar batek ere ez du alarguntza pentsioaren onuradun baldintzaren galtzea ezartzen, *Lege Osoaren* aurreikuspen bat dena, 19 epaietan 2.005ean gauzatu ziren egintzak epaitzen badira ere eta beste 7tan 2.006an egin zirenei buruz erabakitzen bada ere.

ZIGOR OSAGARRIAK







18.ena- Konkurrentziaz gain, hilketa delituagatik eman diren kondena kasu guztietan, **azpikeria** edota **basakeria** inguruabar larrigarriagoetan, eta hauek bikote edo bikote ohiaren kideen arteko hilketa kasu gehienetan konkurritzen dutenak izanik, **ardura kriminala aldatzen duten hainbat inguruabarren** balorazioak eta antzemateak esanguratsuak izaten jarraitzen dute, hau analizatu diren epaietan gauzatzen delarik:

a) Aitorpenaren inguruabar aringarria, delituaren ikerketa errezten duenari onuragarriagoa den tratamendu bat emateko helburuarekin jaio zena, gogorki izaera objektiboa duena, gaur egungo erredakzioan, une batean edo behin betiko eran, egileak egintzak gauzatu zituela onartzen duen kasu guztietan aplikatzen da. Aztertu diren 25 epaietatik 9tan, hauetako kasu batean aringarri analogiko gisa, beraien **%26**aren baliokidea dena antzeman da. Honek 2.006an eman ziren epaien azterketan ikusten zen portzentaiarekiko, soilik Zinpekoen Epaimahaiek emanikoak jasotzen zirelarik, **10 puntuko beherakada** erakusten du. Aldi honetan ere aztertu diren epaietan **epaian antzematen den ardura kriminalaren oinarritzko inguruabar aringarri gisa** jokutzen du.



ANTZEMANDAKO INGURUABAR ARIGARRIAK



b) Kasu bakar batean ere ez da **nahasmendu psikikoaren** inguruabarra **aringarri** gisa ikusi ezta inguruabar salbuesle gisa, bost kasutan **salbuesle osatu gabe** moduan ezartzen delarik (aztertu diren epaien %14).



Portzentai honek inguruabar honek proiektzioa daukan ebazpen judizialeko kasuen **handitze murriz** bat suposatzen du, aurreko azterketarekiko, proiektzioa lehenengoarekiko portzentai berdinetan mantentzen bada ere.

NAHASMENDU PSIKIKOA



c) Egileak **edari alkoholiko edo drogen kontsumoaren** eraginen ondorio gisa jokatu izanaren **inguruabar aringarriari** dagokionez, hau 2.007an eman diren epaien 5 kasuetan (**%14**) antzeman da, hauetako batean mozkeriaren aringarri analogiko gisa, kasu bakar batean ere inguruabar salbuesle oso edo osatu gabe gisa antzematen ez delarik. Honekin aurreko azterketan inguruabar honen antzemandako garrantzia eskasa mantentzen da, soilik aringarri gisa ere aurkezten zena, pixkat portzentai txikiagoan, zehazki aztertu diren epaien %9 batean.


EDARI ALKOHOLIKO EDO DROGEN KONTSUMOA




Aztergaia osatzen zuten epaien artean soilik bik alkohol edo drogekiko menpekotasunarekin eta nahasmendu psikikoekin erlazionatutako ardurak kriminalaren aldageta eragiten duten inguruabarren konkurrentzia antzematen duten batera.

Honek kasuen %23an baten edo bestearen konkurrentzia antzeman dela suposatzen du, kasuen %77an egintzen exekuzioan bere eragina antzematen ez den bitartean.

ANTZEMAN DIREN INGURUABARREN PORTZENTAIA GUZTIRA, NAHASMENDU PSIKIKOARI ETA ALKOHOL EDO DROGA KONTSUMOARI ERLAZINATUTAKOAK






Aurreko b) eta c) atalek heriotza eragiten duen biolentzia kriminalaren zati handiengan, bikote edo bikote ohiaren esparruan, egintzak alkohol edo drogen eraginarekin edo menpekotasunarekin harremanik eduki gabe gauzatu direla edo egileak gaixotasun edo nahasmendu mentalik gabe gauzatu direla azpimarratzen jarraitzen dute.

d) Analisi objektu diren epaietan atzematzen diren inguruabar aringarriei dagokienez, 35 epaietatik 5tan **kaltearen konponketarena** ikusi da, era berdinean, **%14** baten baliokidea dena (oso kualifikatua den kasu batean) eta 2 epaietan (**%6 bat**) **arrebato edo obcecacion-ena**. Epai bakar batean, **%3** bat, **dilazio indebidoak** analogiko gisa antzematzen dira, epaiketa egintzak gauzatu zirenetik sei urte eta zortzi hilabetetara egin zen kasu batean.



BESTE INGURUABAR ARINGARRIAK



f) Inguruabar **larrigarri**ei dagokienez, egintzak hilketa moduan kalifikatzea ahalbideratzen dutenak kontatu gabe, Zigor Kodean aurreikusitakoen artean, **soilik bi antzeman dira**.


Ahaidetasunarena bere konkurrentzia baloratu den kasu guztietan larrigarri moduan aplikatua izan da, Fiskaltzaren edo gainontzeko akusazioen aurretiko eskakizunaren bidez. Hau 35 epaietatik 25etan gertatu da, **kasuen %71** baten baliokidea dena, bai ezkontza lotura existitzen denean zein elkarbizitza edo afektibitate harreman bat existitzen denean. Honek inguruabar larrigarri honen estimazioan **7 puntuko gorakada** suposatzen du, aurreko azterketarekiko, zeinak, aldi berean, lehenengo gauzatutako azterketarekiko, Zinpeko Epaimahaiek 2.001 eta 2.005 eman zituzten epaiei dagokiena, 13 puntuko gorakada erakusten zuen.

INGURUABAR LARRIGARRIA-AHAIDETASUNA



Antzeman den bigarrena nagusikeria, zeina, zehazki 3 epaietan eman den (%8). Hauetako bi kasutan larrigarri honek ahaidetasunarenarekin batera konkurritzen zuen.



INGURUABAR LARRIGARRIAK



19.ena- Aztertu diren erailketa eta hilketa kasuetan elkarbizitza egoeren (bai ezkontuta baita egiteko bikoteak ere) jarraitzearekiko 2.006an eman diren epaietan antzematen diren kasuen portzentaia oso era antzekoan mantentzen da. Zehazki, **elkarbizitza harremana kasuen %60 batean mantentzen zen** (21 epai), hau da, aurreko azterketan baino %18 gehiago, **elkarbizitza existitzen ez zen edo hau amaitutzat ematen zen kasuen %40aren** aurrean (14 epai). Horregatik, **egintza kriminalak haustura sentimentala behin materializatuta gauzatzen diren kasuen portzentaia altua da.**

Datu hauek emakumezkoaren aldetik banantzeko nahiaren komunikazioak edo ohartarazpenak edo hausturaren materializazioak berak arrisku faktore zehatz bat osatzen dutela, erasotzailearen erreakzio basati baten lehergaile gisa, baieztatzen jarraitzen dute. Horregatik, elkarbizitza harremanean sortu diren gatazka puntualak baino gehiago, ezarri den harreman eredu propioak, botere harremanetan asimetrikoa dena, emaitz kriminal hauek sortzen dituela azaltzen da.



ELKARBIZITZAREN EGOERA



Horregatik, gizonezko eta emakumezkoen artean berdintasunezko harreman ereduari buruzko sentsibilizazio sozial baten alde lan egitearen beharra eta emakumezkoen egintza kriminalak aurreikustea ahalbideratzen duten kontrako jarrerak antzemateko trebetasun zehatzekin janztea aldarrikatzen jarraitzen dute, babes neurrien eta ezarri diren isunen eraginkortasuna zabalduz.

20.ena- Kasuen %40 batean – 14 kasu- **ezkontza lotura** existitzen zen, egitezko elkarbizitza bat zen afektibitate harremanaren kasuen **portzentai berdinean**. **%17 batean** (6 kasu) harremana **ezkongaiena** zen, **%3** batean (kasu 1) **ezkongai harremana bukatuta zegoen** bitartean. Honek aurreko azterketarekiko **ezkontza harremana existitzen zen kasuen 10 puntuko handitzea** eman dela esan nahi du, beste harreman mota baten esparruan gauzatu zen eraiketa edo hilketaren kasuetan 10 puntuko beherakada korrelatiboarekin.

LOTURA





21.ena- Egintzak gertatu aurretik eman diren salaketen existentziari dagokionez, hauek analizatu diren 35 epaietatik 9tan agertzen dira, beraien %26 baten baliokidea dena. Epaien zenbateko berdina aurretiko eraso edo mehatxuen existentziari dagokio. Soilik 3 epaiek (%9, azkeneko azterketaren portzentaiaren antzekoa) aurretiko kautelazko neurriak hartu zirela jasotzen dute. Hauetatik, gutxienez kasu batean bikoteko bi kideengatik desatendituak izan ziren.


Aurretiko salaketen existentziari dagokionez, honek 14 puntuko gorakada azaltzen badu ere, - eta 8 puntukoa epaiak aurretiko eraso edo mehatxuen existentzia jasotzen duen kasuetan- aurreko azterketarekin konparatuta, 2.007an eman diren epaien **analisiak aurreko azterketen ondorioak babesten jarraitzen ditu, zeinetan emakumezkoek aurretik ez zuten, heriotza eragin den kasu gehienetan, jazartzen zien arriskuaren intentsitatea antzeman edo hau antzemandan, ez zuten salatu, ustezko afektibitate harreman baten barnean biolentziaren lehenengo manifestazioa inoiz heriotza dela argi ikusten bada ere. Aldi berean, honek generoko indarkeriaren biktimen arrisku egoera ebaluatzeko**


legalki aurreikusi diren neurri guztiak martxan jartzearen beharra erakusten du, dagokion adituen informeen bidez oso modu berezian.

EGINTZEN AURRETIKO SALAKETAK





AURRETIKO ERASO EDO MEHATXUAK EPAIAN EGIAZTATUTAKOAK







AURRETIK NEURRIAK ETA ZIGORRA EZARTZEA





22.ena- Kasuen %66 batean – 23 epai-, **biktimak semeak edo alabak zituen.**

Kasu batean (%3), gainera, heriotz gertaera gauzatu zen unean **seme edo alabak bertan aurkitzen ziren.**

SEME ALABEN EXISTENTZIA





SEME ALABAK EGINTZEN LEKUKO ZUZENAK



23.ena- Aztertu diren 35tik 3 kasutan, %9 bat, egintzen lekuko zuzenak izan dira. Horietako 1tean lekukoak biktimaren ondorengoak izan dira –seme edo alabak-. Kasu bakar batean ere ez dira beraren arbasoak izan. Horietako beste 2tan lekuko zuzenak aurrekoekiko ezberdinak izan dira: kasu batean, afaltzera gonbidatu zuten pertsona bat, eta bestean, lankide bat. Honek, kasuen zatirik handienean, emakumezkoen kontrako biolentzia – bai bere hasierako fasetan baita manifestazio basatienetan ere- intimitatearen esparruan gauzatzen denaren tesia indartzen jarraitzen du, baita ere krimen hauen egileak hirugarren pertsonen aldetik biktima lagundua izateko aukera baztertzen duten egoerak bilatzen dituenaren idea.



EGINTZEN LEKUKO ZUZENAK



24.ena- Amakomunean duten etxea, biktimarena edo egilearena, lehenengo honen eraiketa edo hilketan bukatzen duen erasoaren eszenatoki nagusia izaten jarraitzen du. Hau kasuen %69an gertatzen da – 24 epai-, kasuen %31 baten aurrean – 11 epai- hauetan egintzak bertatik kanpora gauzatu zirelarik.

Bereziki, amankomunean zuten etxeak 18 kasutan heriotz erasoaren eszenatokia osatzen du, kasuen %51 bat, 2.006an eman ziren epaien azterketan baino %4 gutxiago suposatzen duelarik. Bere aldetik, bai biktimaren etxeak zein erasotzailearen etxeak, bakoitza 3 kasurekin, hurrenez hurren, kasuen %9 osatzen dute.

EGINTZEN LEKUA



Egintzak gauzatzeko lekua etxebizitza bati – biena, erasotzailearena edo biktimarena- ez egokitzeari buruzko 2.007an eman diren epaien 10 puntuko beherakadak ez du esan nahi egileak gertaera kriminalaren gauzatzean zigor gabetasuna bilatzen ez duenik.

Horrela, gainontzeko 11 kasutan, hauetako hiruretan egintzak parke publiko batean gauzatzen dira; beste hirutan, deskanpatu batean: beste kasu batean, mendian, mendiko pistatik kanpora, bigarren kasu batean, trenaren bideen hurbileko leku batean, guzti hauen



etxebizitza kokatzen den beste probintzia batean bada ere, eta, hirugarren kasu batean, kotxe baten barnean, mendiko bide batean. Bi kasutan, egintzak hotel bateko logelan gauzatzen dira. Gainontzeko kasuetan, krimenaren eszenatoki gisa, kasu batean, itsasontzi bat azaltzen da,; beste batean, lorategi bat, eta azkenekoan, biktima bizi zen eraikuntzaren garajea.

25.ena- Ustezko egilearen egoera pertsonalari buruzko erabaki judiziala azaltzen den epaien **kasu guztietan**, egintzen ostean, **honen behin behineko kartzela adostu zen**. Hau 35 epaietatik 31an ematen da, azterketa honen objektua osatzen duten %89 baten baliokidea dena.

Hauetariko 26 kasutan, kautelazko neurri honen iraupena antzeman daiteke. **Bere bataz besteko iraupena ia bi urtekoa da.**

Ondorengo grafikoan 26 epai horietan jasotzen den behin behineko kartzelaren iraupen zehatza azaltzen da:



BEHIN BEHINEKO KARTZELAREN IRAUPENA JASOTZEN DUTEN EPAIEN ZENBATEKOA



26.ena- Zinpekoen Epaimahaien edo Probintziako Auzitegien aurrean ahozko epaiketara iritsi diren kasu guztietatik, azterketa hau mugatzen den denbora tartean, **24 kasutan** – hau da, kasuen %69an- **akusazio partikularra pertsonatu da**, prozesalki delituaren kaltetuari dagokiona, **azkeneko azterketarekiko 16 puntu gutxiago** suposatzen duelarik.

Akusazio partikularrarekin konkurritzen edo ez, **23 kasutan akusazio popularra gauzatu da**, oinarrian, Gobernuaren Delegazio Berezia, Autonomia Erkidegoa edo Estatuko Abokatu bezalako erakundeen bitartez, zehaztasun gehiagorik gabe. Honekin, akusazio popularraren **presentzia handiago bat** antzematen da, gertaera kriminal hauen jarraipenean botere publikoek pertsonatzeko hartzen duten erabakiari dagokiola dirudi.

FISKALTZATIK EZBERDINA DEN AKUSAZIO MOTA



27.ena- Azterketa honetan ez da egintzen gauzatzean hildako biktima bat gehiago eragin izan den kasu bakar bat ere azaltzen.

28.ena- Epaien gehiengoak – aztertu diren 35tik 24- arau hauste, erailketa edo hilketa bakar batengatik kondenatzen dute. Gainontzeko hamaikatan, kondena era berdinean beste delitu batzuegatik ematen da.

Batean, kondena, gainera, beste lau delituegatik ematen da: legez kontra armak edukitzeagatik, ohiko biolentziagatik eta bi tratu txarragatik.

Beste epai batean, kondena beste hiru delituegatik ematen da: ohiko tratu txarregatik, mehatxuegatik eta kautelazko neurriaren urraketagatik.

Hiru epaietan, kondena beste bi arau hausteengatik gauzatzen da: kasu batean, kondenaren urraketa eta ohiko tratu txarren delituegatik: bestean, lapurreta jarraitu baten delituegatik, indarkeriarekin, eta ebasketa falta batengatik, eta, hirugarrenean, tratu txar eta ohiko tratu txarren delituegatik.

Azkenik, sei epaietan, kondena ere beste delitu batengatik ematen da, kasu guztietan beraien artean ezberdinak izanik: tratu txarregatik, kautelazko neurriaren urraketagatik, legez kontra armak edukitzeagatik, lesioengatik, eraso sexualengatik eta Justiziari eragozteagatik.

Gainera, **gauzatu diren erailketa edo hilketa delituen ezagutza Zinpeko Epaimahaien eskumenen artean barneratzeko joera dago delitu konexoekin konkurritzen dutenean**, aurrekoa alderantziz jarriz, oinarrizkoan, kasu hauetan Probintziako Auzitegiak esku hartzen zutelarik.

29.ena- Epaien gehiengoak **ardura zibilaren gaian aldarrikapena** gauzatzen zuen, zehazki, aztergai diren **35 epaietatik 34k** egiten dute, guztiaren %97ak.

Dakigun moduan, bere zehaztapenak alderdiaren aurretiko eskaera exigitzen du zein delituaren kaltetu baldintzaren egiaztapena ere bai, bere estimazioaren aurreikuspen gisa. Zehazki, aspektu hau tratatzen duten aipatu diren epaietako bat gai honetan aldarrikatzen da, baina Fiskaltzak eskatu duen kalte ordaina baztertzeko, zeinean hildakoaren bi anai arreba bakoitzari 2.000 eurotako kalte ordaina ezartzen zitzaien: epai honek eskeintzen duen aipatutako

desestimazioaren argudiaketa hauetako bakar bat ere gertakarietan pertsonatu ez izanean oinarritzen da, baita froga ez praktikatu izatea ezta hauek hildako biktimarekin batzen zuen harremana ez ezagutzea ere.

Kaltetu bakoitzaren mesedetan, hau onartzen duten 33 epai bakoitzean, ezarri den kalte ordainaren zenbatekoa, argiki, ez da homogenea, beste aldagaien artean, ahaidetasun graduaren edo kaltetuak izan diren pertsonen inguruabar zehatzen (hil den pertsonarekin elkarbizitzea edo ez, kaltetuen adingabetasuna, seme alaben lotura bikoitza edo ez, afektibitate harreman bat existitzea...) arabera aldaketak existitzen direlarik.

Horrela, biktimaren seme alabei dagokienez, seme edo alaba bakoitzaren aldeko zenbatekoa 300.000 euro, kasu bakar batean, eta 17.000 euro, bestean, artean aurkitzen da.

Epaiari seme edota alaba bakoitzaren alde ezarri diren bete kantitateak ondorengoak dira: 240.000 euro, 225.000 euro, 212.832,69 euro, 200.000 euro, 180.000 euro, 175.000 euro, 150.000 euro, 141.700,71 euro, 120.000 euro, 95.088, 53 euro, 95.000 euro, 80.000 euro, 79.000 euro, 50.000 euro, 42.000 euro, 49.000 euro, 44.281, 48 euro, 40.000 euro, 30.000 euro, 20.000 euro eta 17.712, 58 euro.

Seme edo alaben alde ezarri diren kalte ordainek guztira 5.077.686,40 euro batzen dituzte, honi, ebazpen bakoitzean, epaiaren exekuzioan zehazten den zenbatekoa gehitu behar zaiolarik.

Biktimaren gurasoen alde ezartzen den ardura zibilaren zenbatekoari dagokionez, hauen erabakiak ere aldatu egiten dira, biktimarekiko hauetako bakoitzak zuen menpekotasuna, afektibitatea edo lotura pertsonala kontutan hartuta.

Horrela, amen alde ezarri direnei dagokienez, epaiak erreferentzia egiten dion guraso bakarra bada, kantitateak 180.000 euro eta 8.856, 29 euro artean aurkitzen da, 120,202 eurotik, 100.000 eurotik, 20.000 eurotik, 10.000 eurotik eta 9.661, 20 eurotik pasatuz.

Aitari bakarrik erreferentzia egiten dion epai bakarrean honen alde 85.000 eurotako kalte ordaina ezartzen du.

Gainontzeko kasuetan, kalte ordaina bi gurasoen alde ezartzen denean, bientzako batuketa 400.000 euro eta 16.200 euroren artean aurkitzen da, 200.000 eurotik, 180.000 eurotik, 120.000 eurotik eta 50.000 eurotik pasatuz.

Gurasoen alde ezarri diren kalte ordain guztiek 1.499.919,40 euro batzen dituzte.

Anai arrebei erreferentzia egiten dienari dagokionez, ezarri diren kalte ordaina anai edo arreba bakoitzeko 60.000 euro eta 10.000 euro bitartean aurkitzen da, pertsonako 50.000 eurotik, 42.000 eurotik 40.000 eurotik pasatuz.

Anai edota arreben alde ezarri diren kalte ordain guztiek 252.000 euro batzen dituzte.

Oinordeko legalen aldeko arduraren zibilaren zenbatekoa hiru epaietan zehazten da, zenbaki zein pertsona zehatzak adierazi gabe, eta 180.000 euroko zenbatekoarekin, kasu batean, 120.000 eurokoa beste batean eta 60.000 euroko beste hirugarren kasu batean.

Oinordeko legalen alde ezarri diren kalte ordain guztiek 360.000 euro batzen dituzte.

Azkenik, kalteordainaren onuradunak zehazteko beste formula bat erabiltzen duen epai multzo bat dago, zehazki hiru epai direlarik. Batean, "biktimaren familiar" ren alde egiten da, 200.000 euroko zenbatekoarekin. Bigarrenetan "bere ahaidetasuna jasotzen ez den pertsona bat" en alde egiten da, 8.856,30 euroko zenbatekoarekin. Hirugarrenak Estatuaren alde egiten du, 49.826,40 euroko zenbatekoarekin.

Epai multzo honetan ezarri diren kalte ordain guztiek 258.682,70 euro batzen dituzte.



Jasotzen den 33 epaietan ezartzen zen arduraren zibilaren zenbatekoak guztira, - aztergai diren 35tik- 7.448.288,50 euro batzen ditu, honi kasu batean epaiaren exekuzioan zehaztu daitekeena gehitu behar zaio, hauetariko baten aldarrikapenaren arabera.

Azkeneko aspektu hau kontutan eduki gabe, aurrekoak epai bakoitzeko batz best 212.808,24 euroko kalte ordaina ematen du, hau da, 2.006an Zinpekoen Epaimahaiak eman zituen epaietan baino 61.286, 89 euro gehiago.

30.ena- Soilik analizatu diren kasu batean -%3-, beraien osotasunean kondenazkoak izan direnak, **organo jurisdikzionala – zehazki, Zinpekoen Epaimahaiak- kondenatua izan zen pertsonaren indultu partzial baten alde agertu zen.** Hau emakumezko baten kondena kasuan gertatu zen, akusatua adinari 64 urte- eta, zigorraren zati bat beteta zuenez, “bere berriro gizarteratzea frogatuta” zuelako.



Honek, praktikoki epaien osotasun guztian, Zinpekoen Epaimahaiak eta Probintziako Auzitegiek beraien ezarri zituzten zigorrak proportzionalak eta egokiak zirela kontsideratu zituzten.

INDULTUARI BURUZKO ERABAKIA



31.ena- Auzi gehien epaitu dituzten Probintziako Auzitegiak edo Zinpeko Epaimahaiak dituzten Autonomia Erkidegoei dagokienez, Andaluzia eta Katalunia azpimarratu behar dira, bakoitzak 8 epai dituelarik, hauei Gaztela eta Leonek, Madrilek eta Valentziako Autonomia Erkidegoak jarraitzen diete, bakoitza hiru epaiekin. Denbora tarte honetan Balearrak, Kanariak eta Gaztela La Manchak bakoitzak 2 epai eman ditu, eta azkenik, Asturias, Galizia eta Euskadiko Autonomia Erkidegoak, hurrenez hurren, epai bat eman dute.



AUTONOMIA ERKIDEGOAK



32.ena- 2.007an zehar epaitu ziren **egintzen datei** dagokienez, **analizatu diren kasu gehienak 2.005 urtean gertatu ziren, horietako 19, aurretik aztertu den behin behineko kartzela kautelazko neurriaren batz besteko iraupenarekin koherentea dena.** Aurrekoa eta gero, denboraldi horretan epaitu ziren kasuen

zenbatekorik handiena eskeitzen duen urte tartea 2.006 da, 7 kasurekin, honi 2.004 urteak jarraitzen diolarik, 6 kasurekin. Bi epai 2.007an gauzatu ziren egintzei dagokie eta bat, zeinean behar ez bezalako atzerapenen inguruabar aringarri analogikoa antzematen zen, 2.000an.

2.007AN EPAITU ZIREN EGINTZEN DATA



33.ena- Egintzen ostean akusatuaren jokaerari dagokionez, honi erreferentzia egiten dioten 30 epaien zati handienak **egilearen ihesa edo egintzen ukapena** azaltzen du. Hau horietako **20 kasutan** gertatzen da, aspektu hau jasotzen dutenen **ia %67ak**. Hauetariko bitan, hasierako ihes egiteko edo egintzak ukatzeko erreakzioa eta gero, egileak beranduago egintzak onartu zituen.

Egilearen borondatezko entregatzea, tradizionalki egilearen elementu errebindikatibo eta nagusitasun posizioaren bultzatzaile gisa azaldua izan dena, **8 kasutan gauzatu zen, ia %27**, azkeneko azterketarekiko 12 puntuko gutxitze portzental bat suposatzen duelarik.

Soilik **bi kasutan** – ia %7 bat, azkeneko azterketan baino bi puntu gutxiago- eman zen epaian **suizidio saiakera bat** azaltzen da.

EGILEAREN JOKAERA EGINTZAK ETA GERO

